DOHAN ZEURE ETXERAKO

1991ko Maiatza/26 Alea

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailaren babesarekin

... eta kitto!

Eibartarren laurdenak kirolari lotuta

Azken urtean % 20an igo da Polikiroldegiko karneten kopurua

Sarri samar edozer gauzaz baliatzen gara arazoak sortzeko. Horietariko bat gogoratzean, astia nola eman jakin ezak sortzen dizkigunak ez dira txantxetakoak. Baina badirudi, azken aldi honetan behintzat, stressari aurre egiteko asmoz oso erabilgarria den kirolen praktika, zabaltzen ari dela noizbehinka izaten ditugun aisia tarteak gozatzerako orduan. Hori dela eta, ez dira gutxi igeriketan aritzea, frontoien pareta astintzea edo saunara bisitatxoa egitea heuren bizimoduko ohitura bezala daukatenak.


Kirolari buruz hitzegiterakoan ez digu on askorik egingo pantailan ikusten dugunari bakarrik mugatzen bagara. Argi dago sofatik altxa eta beso edo belaunak -burua bestela, aukeran- mugimendutan ipini behar ditugula. Eibarren horrelakoetan gehienek Polikiroldegira jotzen dute. Gaur egun 6.600 pasatxo daude Patronatoan abonatuta eta urte amaierarako 7.400eraino heltzea espero da; aurrikuste edo prebisio hau beteko balitz, urte baten emandako % 16ko gorakada honek populazioaren laurdena inplikatuko zukeen.

Iaz buruturiko txosten baten emaitzak, bestalde, zera adierazten dute: kirol mota bat edo beste praktikatzen dutenen kopurua ez dela jeisten, inolaz ere, herritarren % 30etik. Polikiroldegitik kanpo ere badira egiten dutenak, batzu federatuak bezala eta "por libre" gustokoago dutenak ere.

Eskoletako umeetatik hasita 3. Adinekoen arte

Azken urtean 600 mila asistentzi -hori nahiz eta piszinak itxita egon hilabete batzutan, uraren eza zela medio-izan zituen zentru honek. Bere aktibitate nagusien artean haueexek ditu: alde batetik, irakasleekin eskaintzen diren programak eta, bestetik, jendeak bere kabuz praktikatzen dituzten kirolak; hortik aparte, Torneoak ere antolatzen dira.

Irakasleek ematen dituzten programetan sartu behar dira 3. Adinekoei -201 lagun- ematen zaienak, Mantentzeko Gimnasiarena -161, Aerobic-a, Karate, Judoa, Gin-Jazz eta Uretako Ariketak. Esparru honetan aipatzekoa da asistentzia aldetik portzentai handiena 3. Adinekoena dela, Gipuzkoako jende gehien biltzen duen herria Eibar delarik. Mantentzeko gimnasia da, bestalde, aktibitate zaharrena; gaur egun zeozer jeitsi dena gainera, banandu edo dibertsifikatu bait da. Horrela, batzuk gimnasia uretan egiten hasi dira: 13 lagun ari dira eta beste 47 itxoiten daude.



Gimnasia erritmikoaren kanterak fruitu onak erakusten dihardu

Hauek aparte, Kirol Eskoletako programak ere irakasleekin ematen dira. hemen kirol Eskola Orokorra -3. eta 4. Mailan 750 neska-mutikoei zuzendua- eta Kirol Eskola Espezifikoak -gimnasi, pelota, xakea, atletismoa, eskubaloia etabar, 14 urte artekoei zuzenduak- bereizten dira.

Honez gainera Igeriketa kanpainak ematen dira 3. eta 4. Mailan dauden gaztetxoentzako. Hauek hirurako lekua bete ezinik daude eta beste 750 eta Eskualdeko beste 500 (Ermua, Mallabia eta Zaldibarkoak) dira prestakuntza hau jasoko dutenak. Azken hauei eskaintzen zaien aukeraren zergatia Durangotik hona dagoen piszinen faltan datza.

Piszinak dira gehien erabiltzen diren ezarketak

Ekintza ugari eskoletako umeei zuzenduta daudenez, irailetik maiatzera arteko denbora horretan ezagutzen da mugimendu gehien. Piszinak egunero 600 abonatuen bisita jasotzen dute eta guztira 1.300 edo 1.400 lagunena. Iaz, adibidez, nahiz eta maiatza arte itxita egon, 200 mila lagun pasatu ziren, kanpokoa kontatuz gero; hau asistentzia guztien herena da.

Aipatzekoak dira, beste kirolei dagokionez eta "por libre" egiten direnen artean: squash -11 mila-, saskibaloia -ia 7 mila-, frontoia -6 mila-, muskulaziorako sala -6 mila, futbol-sala -4 mila-, mahai gaineko tenisa –3 mila–, sauna -3 mila- eta rokodromoa -500-.

Guztira, urtetik urtera % 10 edo 12ko igoera ikusten da, asistentzia eta ezarketaren erabileran. Abonatu gehienak Eibarkoak dira eta hauen atzetik Ermukoak, alde handiaz.

Patronatoen gestioa daramatenen artean, momentu hauetan, kalitatearen hobekuntzak hartu dio aurrea hazteari. Kirol eskolak bultzatzeaz gain, datorren ikasturterako eskola berri bi sortu behar ditu: eskaladakoa eta herri-kiroletakoa.


Torneoetan, gabonetakoez aparte, Saskibaloikoak VI. Edizioa bizi du eta Futbol-Salarena aurten hasi da.

Kirol federatuan futbola eta mendia nagusi

Arazoak falta ez arren, gainera konponketa latzakoak (atletismorako pisten eta rugbyan eta futbolean jokatzeko zelaien premia), Eibarren 18 talde daude gizonezkoei nahiz emakumezkoei kirola praktikatzeko aukera ematen dietenak. Gehien biltzen dituena Club Deportivo Eibar da, 613rekin -guztien % 36-; honen atzetik C.D. Urki 180rekin, Gimnasio Kalamua 169rekin eta Club Ciclista Eibarres. Guztira 1.676 kirolari, 1.417 gizonak eta 259 emakumezkoak -% 16a-.

Federatu munduan gehien praktikatzen diren kirolen artean hauek ditugu: futbola (% 20), mendia (%18) eta urrutirago karatea, eskubaloia eta eskia. Gizon gehienak futbolean dihardute eta, honen atzetik, mendian. Emakumeak, aldiz, mendian jarduten dira gehien, eskubaloiaren aurretik.


club deportivo dinbidanba de Avancarga da azken denboran osatu den talde berriena, iaz Arraten izandako nazioarteko tiraden edo jaurtiketen ondorioa.



Kirol Federatua

15 Talde
1.676 Kirolari
1.476 Gizon (% 84)
259 Emakume (% 16)

ITURRI ONETIK



Miguel Diego,

42 urte. Hezkuntza Fisikoan lizentziatua. Unibertsitate Laboralean 8 urtetan irakasle bezala. 14 urte Arrate eskubaloi taldeko entrenatzaile. 1982tik hona Patronatoko Zuzendari Teknikoa.

Kirola egitea moda bihurtuko ote? Eibar bezalako esparru baten gaudenontzat beharrezkoa ote zaigu ihesbiderik aurkitzea? Zer mailatan gaude arlo honetan?

Eibarren oso garrantzitsua da kirol aukera. Kontutan hartu behar da 82tik kezka zabaldu dela gure artean, bai osasun arloan baita ongizate mailan ere. Gune edo momentua ezin hobea da, aproposena. Gestionatzen dugunok, dena den, baliteke kirola gauza garrantzizkoena bezala hartzea eta hau guztiz zuzena ez izatea. Argi dagoena da kirola berezkoak dituen balorengatik hartu behar dela eta ez politikoek esaten duten modura, drogari aurre egiteko etabar. Ingurune itogarri baten bilatu dezakegun elementu aberasgarria da; eta horretarako ez da esklusibista izan beharrik eta guztia nahi ona ekarzea, kanpoan ondo asko elatu dezakegun elementu aberasgarria da; eta horretarako ez da esklusibista izan beharrik eta guztia nahi ona ekartzea, kanpoan ondo asko egin liteke, mountain-biken modarekin gertatzen denez, adibidez.

Iaz egindako estudioan eta aztertutako emaitzetan ikusten denez % 30a baino gehiagok kirola praktikatzen du. Hau orain dela urte batzu ezin zitekeen pentsatu, gestore bezala igual bai, baina ez hiritar baten ikuspuntutik.

Kontua da praktika entretenigarriak aukeratzeko eskaintzak izatea eta hemen bai dutela esatekorik politikoak nahiz beste erakunde munizipalek. Bizitzaren kalitatearen hobekuntza bilatu behar dugu eta hau ez da neurtu behar bakarrik asko edo gutxi diren Polikiroldegira datozenak begiratzean. Funtsezkoena aisia tartean aktibitateak burutzea da eta hau ez da zergatik kirola bidez izan behar derrigorrez. Zergatik ez du zeramikak, esate baterako, hori beteko?

... eta gainera

- Ramon Sarasuaren liburuaz (2. orrial.)
- Gazte taldeak eta militantzi (3 orrial.)
- Literatura: "Bizar gorriko biztanle" giza-eskubideen saria (4/5 orrial.)
- Jorge Lasuen abokatu gaztea (6. orrial.)
- Juanita Unzuetaren Balleta (7. orrial)
- Euskal Jaia (8. orrial)

BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK
ETESA
KOMERTZIALA
Bidebarrieta, 66.428 Postakutxa/Tfnoa: 12 19 73 (Eibar)

FIAT
DEBA ALDEKO BANATZAILEA
Tfnoa. 12 10 00
12 10 19
HOGEI, S.A.
Bittor Sarasketa 7.
EIBAR

NEURTEK S.A.
AMAITUTAKO SUPERFIZIEN KALITATEA KONTROLATZEKO TRESNAK
Txaltxa Zelai 1. Tfnoa. 70 20 79. Faxa: 70 02 12 EIBAR

Ramon Sarasuaren
"La musica en Eibar. Eibarko musikoak"


Maiatzaren 17an aurkeztuko da Ramon Sarasuaren "La música en Eibar. Eibarko musikoak" deitutako liburua. Horren gañian berba eitteko asmuakin bere etxera gonbidatu nau, gela txiki batean egon gara; pianoa alde batera, zintaz betetako armairu bat bestaldera (euren artean bere grabaziñoak dagoz), kuadro batzuk txukun orman jarrita,... "gauzak ondo eitten dakien pertsona bat ematen dau Ramonek" pentsatu dot neure artean. Bere esanetan "lan haundixa emon desta liburu honek, baiña afiziñoz ein dot, neri gustatzen jatan ta maite doten gai baten inguruan idatzi dotelako: musikia."

—Zegatik hasi zinen liburu hau idazten?

Istorixa hau 1964an hasi zan. Esan zezten zelan liburu bat etaratzera zoiazen Eibarri buruz, ta horren barruan musikaren gañean idazteko esan. Ta hasi nintzan eitxen; amaitxu be bai, baiña liburua azkenian ez zan atara, ta lan hori hogeitazazpi urtian euki dot kajoi baten sartuta. Oin dala urte batzuk, euskerako batzordian ta Ego-Ibarrako asesore moduan sartu nitzanian ba..egun baten pentsau genduan musikari buruz liburu bat publikatzia. Nik nekan lana hartu ta gero handik honako beste musiku barrixak gehitzia. Ta egixa esan 1964kuak lan gitxiago emon zeztan handik honakuak baiño. Orduan sortu dot hau liburutxu hau, lan haundixa emon desta, baina pentsatze jata jentiari gustau eingo jakola, gainera argazki asko doiaz, ta anekdota batzuk be bai.

—Zeintzuk dira liburuaren atalak?

Ni hasten naiz aurkezpen moduan Eibarko giroari buruz musikian aldetik, gero ze abesbatza egon diran, ondoren musikuen biografixa bat mila seirehun ta pikugarren urtetik honakua, gero sartu ditxuraz talde hauek: kantantiak, biolinistak, pianistak, akordeonistak,...Bueno, kantantien barruan diferentzia bat egin dot kantoria ta kantantien artian. Kantoriak dira parrokixan kantau dabienak, koraletan ibilitxakuak,...baina nik kantantiak bakarrik hartu ditxuraz kontutan liburuan. ta kantantia mire ustez da, baabeslari bat baina Eibarko fronterak pasau dittuanak: solista ospetsuak, koru donostiarran abestu dabenak, edo operia kantau dabenak,...ta barka deixiela beste guztixak zergaitik eze bestela ezinezkua izango zan. Bestaldetik, esatia nahi dot sartu ditturazela bat edo beste musiko Eibarren jaixotakuak ez diranak baina bizitza osua Eibarren pasau dabienak; Eibar beti izan da eskuzabala, kanpotik datorren jentia hartzekua, hala ta guzti nik argi jartzen dot biografixan: Elgoibarren jaiua, Durangon Donostian jaiua edo dana dala. Nik horrek gauzok kalian entzun biharrian ba nahixao dot aurrez esatia.



—Zein dala uste dozu Eibarko istorian zehar pertsonarik interesantiena?

Biografixia hasten da Joanes de Abanzabalegikin, gero doiaz ba Egiguren, Sostoanekuak eurak, azken honek XVIII. mendekuak dira. Baina neri, egixa esan biot, gehixen gustau jatana estudixatzia nere osaba Juan Bautista Gisasola izan da, konposiziño arluan lan haundixak dakazelako einda, ta gero ba Manuel ta Andres Sostoa anaiak, prailliak eurak, edo Agustin Zuloaga... asko dagoz interesantiak!

—Lehengo musikoen ta oraingoen artean zer diferentzia ikusten dozu?

Oingo musikian teknikia oso ezbardina da, hori pintxuran moduan da, kuadro surealistak behin baiño gehixaotan begiratu bihar dira, ni ez nao ohitxuta. Ba musikan hori ikusten dot, entzunaz ta entzunaz gustau eitxen jatzu. Musika klasikua estreinako entzunda gustokua izan leike, oiñ, gaur eguneko musikiak bi edo hiru aldittan bihar dau entzutia.

—Musikaren zaletasuna nondik datortzu

Jatorrittik, nire birraitxitxa San Andresko organistia zan, nere aitxitxa San Andresko koralistia, gero nere osaba Juan Bautista konpositore ospetsua ta Orfeoi eibarreseko zuzendarixa, nire anai nagusixa koraliko zuzendari, nire aitxa ta ama nobixo ein ziran zegaitxik eze nere aitxa joaten zan solfeua ta pianua ikastera urtietara nere aitxaren aitxaginarreba izango zenarengana. Neri afiziñua, beraz, familixatik, etorri jata, ondio ordubete egunero pianua joten dot, baita grabau be bai, afiziño haundixa dakatelako.

IRAKURLEAREN TXOKOA

"RAP"-a? Bai, baina batzutan

Krisialdia berriz ere gogortzen ari den garai hauetan, enpresak beren langile kopuruak murrizten ari direnean, kontraesan bat badirudi ere, handi nahiaz bizi den gure herri honetan gero eta **forja** gehiago dauzkagu. Lokal hauek beste garai batean bezala edozein etxepe edo peoratan aurki ditzazkegu, beraietan "Eibarko Industria Handia" zen garaietan bezala errelebotan lana goiz alde arte egiten delarik, eta japoniarrak balira bezala larunbat eta igandetan ere lan egitea gustatzen zaie, batez ere bi egun hauetan. Bertako langileen itxura nahiko xelebrea izaten da, ez bait dira denori bururatuko zitzaigun buzoarekon jantziak joaten, batzuk ejekutiboen antzera ere jantziak joaten dira **forja** hauetara. Lokal hauen barruan egon ezineko beroa egoten da batzutan, eta kalean pasiatzen doanak ere somatzen du berotasun hori bere parean pasatzerakoan atea zabalik egonez gero. Egunen batean forja hauetakoren batera lan bila joatea erabakitzen duenak, nik jasan nuen bezalako sorpresa galanta jasoko du. Lantegiko atezaina, mahaitxo batean jarria egon ordez, plastikozko basoz osaturiko "Torre Eiffel-a" du bere eskuan. Aurrera jarraitu eta txunditurik gelditzeko kuadroa: langileak, lan egin beharrean basoa eskuan dutela burua usoen antzera aurrera eta atzera eraginez jarduten dute, eta hauek baino urduriago daudenak hankak ere geldi egon ezinik. Hauetariko batengana hurbildu eta zarata ateratzen zuten prentsegatik galdetu ondoren, enpresaren goi aldeko kantoietan kokaturik zeuden kajoitxo beltz batzuk seinalatu zizkidan. makina horiei "Bafle" deitzen zaiela komentatu zidan eta Dumba-Dumba hori "ACIDHOUSE eta RAP". Beste produktu ezberdinik ez ote zuten fabrikatzen galdetzean, honela esan zidan tipoak: - tío, con la música a otra parte.

Tio Musikaria



Sariketa

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta IKUSONIKek oparituko duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

Eibarko udala - Euskara zerbitzua
... Eta Kitto Sariketa"
25. Aleko Sariketaren erantzuna "Bidebarrieta kalea eta Ibarbia zeharraren artean dago". SARITUA: Eugenia Iriondo Cortaberria, Bittor Sarasketa kalean bizi dena. Hurrengo Sariketarako Maiatzaren 20a baino lehen bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!


Diska Salduenak Apirilean — IKUSONIK

Euskaraz

Su ta Gar. "Jaiotze basatia"
Ruper Ordorika. "Ez da posible"
Anje Duhalde. "Xabier Amuriza kantarik"
Tapia eta Leturia. "Juerga asmoan"
Gontzal Mendibil. "Zu zeu"


Erderaz

Juan Luis Guerra y 4,40 "Bachata Rosa"
Varios. "Baladas"
Eurithmics. "Greatest Hits"
Roxette. "Joyride"
REM. "Out of time"



Adi, segalari! Hor zeozer ari zaigu mugitzen.

Udaberriarekin batera aldaketaren berririk somatu dugu Untzagako musika kioskoan. Naturaren indarra jakina. Denboraren poderioz baliteke gure buru soiletan horrelako kili-kili batzu sentitzea, gemendik ez askotara. Musikoak alde batera utzita, segalarien bila hasi beharko gat aea,tpakoan zeozer sentiarazten badigu plataforma horrek ez zegoek txarto, nahiz eta aspaldiko gizonak sorturiko doinua gaur egun naturaren eraginez gure buruan sentsazio bihurrietan bilakatu.



Gazte gara Gazte

HARTZAREN KOBATIK

Ehiztariak Protestaka

Beraien ordu heldu da. Estudianteak hasi zuten joera hau. Atzetik langile xeheak etorri ziren. Gero maisuak. Hurrengo Kuwaiteko gerraren aurka zeuden pazifistak. Azkenik, CEEren politika agrikolaren kontra dauden baserritarrak. Orain, berriz, ehiztariak izan dira beraien eskubideen alde manifestatu direnak, egundoko konzentrazioak burutuz, bai Euskal-Herri eta baita Espainia mailan.

Bazen ordua!. Azken urteetan, ehiztari gaixoak sekulako irain eta deskalifikazioak entzun behar izan dituzte beren kirola praktikatzeagatik. "Hiltzaileak" direla, eta "ekosistema" galerazten dutela aurpegiratzen zaie, batez ere. Ehiztariek, Job famatuaren pazientzia txikia utziz, guztia aguantatu dute: ekologisten gaitzezpenak, gizartearen mespretxua, lizentzien garestitzea eta salbu ihes egiten duten txorien burlak. Gehiegi, txo! azkenean kaleratu egin dira beren eskubideen alde, Donostian manifestapen batera deituz.

Partizipazioaren aldetik, arrakasta bat izan zen. Euskal-Herriko milaka ehiztari bildu ziren protesta honetan. Hartutako erabakiak mamitsuak izan ziren. Nabarmenena, ehiztariek ez zutela, hemendik aurrera, botorik emango ehizaren aurka doazen partiduei. Aurki, agian, ehiztarien partidu politiko bat eratuko da, izenak bezala "Unión cartuchera" eta "frente de liberación del cazador oprimido" zalantzan direlarik. Nik ez dakit kongresua "pase"-rako prestatutako txabola batean egingo duten, baina behintzat, pazifistekin koalizioa egitea zaila egingo zaie. Pakearen usoak gaizki bukatuko luke seguraski.

Baina politikariek ez dira ehiztarien aurka dauden bakarrak. Gizartean nabaritzen da kirolari hauen kontrako giroa. Nere ustez, erretxazo honen gakoa memoria historikoan datza. Adineko jendeak gogoratuko duenez, orain dela urte batzuk bazen inongo popularidaderik ez zuen erakunde polizial bat, "karabineroak". Itxuraz, "karabinero" haiek sortutako ikusiezina gaurko "eskopeteroek" jaso dute, inongo errurik gabe. Historiaren injustiziak. Baina jendeak ezin ditu bista aurrean ikusi ere.

Beraz, gure ehiztari gaixoen panorama ez da batere ederra; gizarte mailan gaizkile bezala kontsideraturik, lizentziak gero eta gareztiago, bedak nonahi eta, gainera, txoriek bere tirotik ospa egiten enpeinaturik. Egoera latz hau konpondu egin behar da epe laburrean, bestela, "mono"-aren poderioz, batzuk Untzagako plazako usoei tiroka hasiko dira.

Sasoi latzak konpromiso politikorako

Eibarko gazte apur bat afiliatzen da partiduetan

Garaiak ez dira onak konpromiso politikorako, batez ere gazteen artean. Nahiz eta alderdi politiko guztiak gazteei zuzendutako taldeak eduki, hauen eragina, bai bere adin bereko jendearengan baita partidu "nagusiengan" zalantzan jartzeko modukoa da, askotan militantzia ezaren erruz. Dena den, eta talde hauen lana aztertzeko, gazte mailan Eibarren hobetoen funtzionatzen duten bi talde aukeratu ditugu; Gaztedi Sozialistak (PSE-PSOE), eta Jarrai (HBren orbitakoa). Oso ezberdinak politika mailan, noski, baina badituzte antzekotasun eta ezberdintasun organizatibo ugari, konpromiso politiko bat desarrollatze aukeratu duten gazteak.

Hauteskunde munizipalen atarian aurkitzen gara, eta, ohi bezala, promesak, kartelak eta eztabaidak nonahi zabalduko dira. Guztiek arrazoiaren jabe, baina herriaren botu eta konfidantzaren bila. Gazteei dagokienez, askotan esaten da "pasotismoa" dela bere jarrera nagusiena politikaren aurrean, ez zaiela ardura bere inguruan desarroilatzen diren borroka politikoak. Agian, gauza berbera esan genezake pertsona helduen kasuan, politikarien prestijioa ez bait da oso haundia gaur egun.

Dena den, badira politikaren munduan murgiltzen diren gazteak, botoa ematetik aparte alderdietan afiliatzen direnak. Ia alderdi politiko guztiak dituzte gazteei zuzendutako erakundeak, nahiz eta Eibarren gutxi izan, gure herriaren tamainoagatik, agian. Erakunde hauek ezaugarri ezberdinak izaten dituzte, partidu "nagusien" karakteristiken arabera. Alderdi batzutan indarra eta presentzia dute hartzen diren erabakietan. Bestetan, aldiz, ia ez dute inongo indar eta militanterik, eta "club Disney" politiko bat bezala hartuak izaten dira. Baina, gazte erakunde politiko guzti hauen partaideek gauza bat dute elkarrekin: gure gizartea aldatu edota gidatzeko ustez balio duen ideologia bat. Eta ideologia hori aplikatzeko gogoa.

Bi eredu desberdin

Gazte erakunde politiko hauek bi eredu ezberdin segitzen dituzte jeneralean, nahiz eta ezaugarri komun asko eduki. Gure herrian mugitzen diren gazte taldeen artean bi har ditzakegu modu ezberdin hauen esponente bezala: Gaztedi Sozialistak eta Jarrai. Diferente oso planteamendu politikoetan, jakina, baina badituzte ezberdintasun operatiboak ere.

Hasteko, militantziaren kasua. Gaztedi sozialistak alderdi politikoak egiten duten antzera antolatzen da, hots, ahal diren militante guztiak jasoz. Eibarren, 56 gazte dira erakunde honen partaide. Gure herrian PSE-PSOEko militanteak 450 direla kontutan hartzen badugu, gazteen presentzia numerikoa ez da makala. Jarraik, aldiz, oso militante gutxi ditu, bere erakundea "koadroen" organizazio bat bezala ikusten dutelako, beraz, militante kualifikatuz osatutako erakunde bat. Jarrairen partaideek eskatutakoa betetzeko, ez dugu erakunde honen militanteen kopuru zehatzik.



▲ Gazte hauek "azken mohikano" batzuen inpresioa ematen dute.

▲ Kandidatura sozialistan Gaztedi Sozialistako hiru partaide.

▲ Jarrairen kanpaina "permanentea" da: kaleetan, komunikatuak.

▲ Bestetan, "club Disney" politiko bat bezala hartuak dira

Eragina?

Zein da erakunde hauek gure herriko gazteriarengan duten eragina?. Eritziak asko dira. Coral Rodriguez, Gaztedi Sozialisteko kideak, ez du uste eragin haundiegia izaten dutenik. "Ez, egia esateko, gure kasuan influentzia haundiegirik ez dugu. Jendeak iz ez gaitu ezagutzen, ezta egiten dugun lanaren berri eduki ere. Hau ez da soilik gure kasua, EGI eta beste erakundeak arazo berdina dute". Bere aldetik, "Jarrai"ko partaidea den Joseba ez dator bat eritzi honekin, "guk ikusten dugu gure lanak jendearengan eragina duela, kalean mugitzen bait gara eta erantzunak ikusten dira. Eibarko gazteriak baditu gure planteamendu eta kezken berri".

"Praxis" politikoan ere badira ezberdintasunak. Gazte talde politiko "tradizionalak", Gaztedi Sozialista eredu bezala hartu dugularik, soilik, kanpaina garaietan agertzen dira publikoki; bestela, heuren sedetan izaten dira, partidu "nagusiaren" bizitzan parte hartuz. "Jarrai"k, bere aldetik, beste lan mota bat burutzen du,e ta kaleetan jarritako kartel, komunikatu eta beste medioen bidez aktualitatea gertutik segitzen dute. Heuren kanpaina "permanentea" da.

Erakunde hauen eragina ez dugu soilik jendearengan kontutan hartu behar, baita bere partidu "nagusien" barnean duten indar eta influentzia neurtu behar dira. Jarrairen kasuan, nahiz eta Herri Batasuneko partaide zuzenak ez izan, koalizio honen aldeko botoa eskatzen dute. Itxuraz, Eibarko HBn "Jarrai"ren opinioak ba dute indarra baina, bere kideen esanetan, Udaletxerako hauteskundetarako zerrendetan agertzeari uko egin zioten, beste kolektibo batzuen onerako. Ez da hori Gaztedi Sozialisten kasua: kandidatura sozialistan GSko hiru partaide agertzen dira. Horretaz gain, Gazte Sozialisten kideek ba dituzte karguak komite lokalean eta alderdiaren barne egituran. "Guzti hau gure alderdiak bizi duen gaztetze prozesuaren eragina da. Azken urteetan makina bat gazte sartu gara alderdi sozialistan, eta erresponsabilitateak hartzen ari gara. Eragin dexente dugu Eibarko partiduan, dudarik gabe" dio Coral Rodriguezek.

Dena den, gazte hauek "azken mohikano" batzuen inpresioa ematen dute, heuren adin bereko jendearengan ez bait da nabaritzen kezka politikoen izpirik ere, afiliazio eta konpromisoaren aldetik behintzat. Azken finean, korrontearen aurka joatea politikari guztiek ikasi beharko duten gauza dugu, goiz ala berandu.

ETXOLA JATETXEA
ETXEKO ESPEZIALITATEA ARRAIN BARIATUAK ETA BAKILAUA DIRA
Tfnoa: 11 70 19 Txirio kale EIBAR

MUEBLES VICTOR
Urki Bchea. 23 Tfnoa. 70 09 39
EIBAR

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK
ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tfnoa: 11 00 70

KIROL PARTIZIPATIBOA

CLUB CICLISTA EIBARRES
EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

C/ ERREBAL, 1-5.º • **20600 EIBAR** (GUIPUZCOA)
TELEFONO (943) 11 34 80 - 7/8 Tarde

Zikloturismoa

Zaletasun zoragarria bidaiatzeko era desberdina

Jose Inazio Maiztegi, zikloturismoaren arduraduna dugu gure herrian. 42 urte dituen Elgoibartar honek, 12 urte daramatza kirol honetan. Bere funtzioa, federatuak, seguruak edukitzea da bereziki, beste hainbat gaien artean. Gizon honentzat, oso garrantzitsuak dira hemen egiten diren irteeretan parte hartzea, eta gehienetan aritzeko asko saiatzen da.

■ **Irteeera ezberdinak**

"Zikloturismoa, bizikletaren gainean bidai bat egitean datza nire ustez, ez dut beste kirol guztiak bezala ikusten, baizik "hobbi" zoragarri bat bezala" aipatzen digu Maiztegik.

Kirol honetatik ikusgarriena, Euskadin zehar egiten diren ibilaldiak dira: Urtean zehar zazpi irteera egiten dira gutxi gora behera, ibilbide ezberdinak egiten direlarik. "Urtearen lehenengo irteerak, nahiko motzak izaten dira, gero eta gogorragoak bihurtzen dira denbora igarotzen den bitartean" azaltzen digu Jose Ignaziok. "Gure bidaiak, oso politak dira; hurrengo hiru hilabeteetarako beste hiru irteera prestaturik daude" jarraitzen du.

■ **Autobidearen arriskua**

Zikloturismoa, nahiko arriskutsua gertatzen da, bizikletaren gainean ibiltzen diren kirolariak, beti autobidean aritzen bait dira. Gogoratu beharra dago, azken bi urte hauetan egon diren istripuak, asko eta oso garrantzitsuak izan direla. "Bai, hau, zikloturismoaren arazo larriena da, auto-gidariak, ez gaituzte asko errespetatzen, hala ere gure errurik badela ere onartzen dugu".

Kirol honen beste berezitasun aipagarria, ekonomikoki oso merkea dela esango genuke, gainera oso osasungarria gertatzen delarik.

■ **Mendiko bizikletaren moda**

Zikloturismoak Eibarren, orain dela bi urte lortu zuen bere gailurra, hala ere zaletasunak jarraitzen du kirolarien artean, irteerak, 65 pertsonaz osaturik egoten bait dira. Baina orain dela gutxi sortu den moda bat, mendiko bizikleta edota "mountain bike" delakoak, partaide asko kendu dio zikloturismoari.

Txirrindularitzak urte hauetan erabateko zaletasuna lortu du, "Txirrindulari euskaldunek, arrakasta handia lortu dute eta hau laguntza handia izan da bizikletaren zaletu guztientzat. Oso garrantzitsua den beste puntu bat, federatzearen puntua da. Denok federatuak egon beharko ginateke, honek segurtasun bat ematen bait du "amaitzen du Maiztegik Federatu nahi duenak, Eibarko ziklista taldera joatea besterik ez du, han datu guztiak jaso ditzakeelarik.

Bizkar gorriko biztanle



Giza eskubideei buruzko idazlana dugu hau. Urtero Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Ipuin Lehiaketan Lehen Saria lortu duen ipuia. Ignazio Zuloaga Institutoko 3. Mailako ikasleek idatzitakoa. Irabazitako saria astebüru osorako bidaia izan da Iparraldea eta Iruña bisitatu zutelarik.

Zoko zorri gorriaren morroi zorrotzek zorrozten dituzte gailur zorrotzeko bona gorri zorroak, zoragarri izan litekeen baina zoritxarrez, zorriketari zurrun eta zorriprestu bihurtu da Ludi zorro honetan. Gauza zera da zorrizu sentitzen naizela. Ez!, zorri gaixo eta defentsa gabedun baten antzera sentitzen naizela.

Bizar gorri batean bizi naizela esateak, nolabaiteko erogoa ekarri dezake, baina egia da. Hainbat mesprezu errepresio eta abarrak jasan ditut, jadanik zoko zorri baten atzerakoa sentitzen naizela. Hala erre, zoroaldiak ondoko karrikan utziaz, bizar gorriko jabetza batetan aurkitzen naiz, eta bertako bizimoduak nire aurka joan diren ekintza ugari ikusi arazi dizkit. Eguneroko bizitzaren barne, niretzat mendi zorrotza bihurtu den bonaren gailurrera igotzeko programa dadukat eta igo aldi horrek dakarkit begi biztara nire nimiñotasunaren sorrerazletariko ekintza bat.

"Gailur honetan gizakion inguruan sorturiko gizartea imajinatzen dut, bertako mendi luze eta gogorrak barne. Eta mendi hauek bihurtu dira iritziak ukatuak izan zaizkion gizaki baten bebesleku. Iritziak, nahiak, gogoak. Nire aurka jokatuaz une eta leku oro, garaile den diskriminazioak bidali du bere bizilekutik. Bere iritziak irentsi arazi dizkio, kultura aukerak desegin, defenda nahiak suntsitu, debekatu, deuseztu...

Ulergabekeria horrek eraman du bizitoki berri baten bila. Adikuntza minimo bat behar zuen (gizakia delako, eta animalia izanez ere) eta bertan dugu orain. Kattagorri xarmangarirekin solasean, txepetx nimiñoarekin jolasean, onartua izan ez den gizartetik kanpoko arau batzu ikasiaz. Eta dena... den-dena... oinpean gaituen diru faltaren erruz, beraren kupida faltaz ez bait zuen gizaki honek entzuna izateko eskubiderik izan, ezta errespetatua izateraren kutsu sentimendu hori edikitzeko eskubiderik. Eta guztia... guztia diruak maeiatzen gaituelako eta gu lelo lelo bere influentziaz ornitzen garelako, astinkai zital batzu bihurtuaz. Gure inguruan gaitzezten dugun, baina gure zirkulotik at burutzen dugun diskriminazioa sortuaz."

Eta guzti honek zauritu nau, poliki-poliki, astirotasun ikustezin batez trinkatuaz. Horregatik imajinatzen dut zuon bizitza nire bizar-mundu hontatik, askotan babesle izan zaizkidan bizar ile gorri eta tinko hauek ez bait didate ur biltzen lagatzen, eta nire momentu hontako ttikitasunak ezin die aurre egin, ezta edozein morroi zorroztutako agin zorrotzez ere.

Guzti hau gogotan edukiaz bonatik jeitxi eta nire programa barruan leku duenak, ostera egitera abiatzen naiz, niretzat lautada luze eta handi bat den ile gabeko zokogune batetara helduaz. Eta bertan berriz ere zuen gizartera urbiltzen naiz imajinazioa dudalarik gidari, nire lana debekatzea izan beharko zatekeen, beste ekintza batzuetaz oroituaz.

"Askatasuna galdua zutenen gurari bihurtu da. Mugen ezikusiak, joranahi joan daitezkenaren esperantzak dituzte bertan. Burdinheziak ez bezala, lasaitasun askatasun eta askotan kari gabe ukatua izan zaion "ni" aldarrikatzen du lautada zabal honek. Maiz ahastuak diren preso guztien ametsa dugu. Gura dituzten pauso guztiak emango dituztenaren irudia da nonnahi eta noiznahi, Iñoren oinpean egongo direnaren ziurtapena da. Erabateko amnistia. Denentzat, bai txiro, aberats, gizon, andra, maila guzien gainetik ematen dena,e zberdintasun eta erabateko diskriminazio guztiak apurtuaz."

Lautadak adierazten du oro, baina oraingoz dena esperantza batean geldítzen da, proiektuan, ene zauriak sendatu eta zuon laguntza lortu arte.

Nire bizar munduko rutina hontan, nire kide diren bizar zorri gorriei ikustaldia egitea dagokit. Eta bertako bizimodua zuonarekin gonbaratzeko ohitura dut, benetan gogorra da hainbat ezberdintasun ikustea bi mundu oro ezberdinetan.

"Guztiak dira bat, mailaketarik gabe. Beldurrik gabe iñork ezera egingo dizuna ezeztatuaz. Zuen gizartean aldiz, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna jasan beharra duzue, lan berdinagatik soldata ezberdinak jaso beharra askotan, norbaitek zerbait egingo dizunaren beldurra edukitzeko joera, azkenean guztia itsumen zoro bat bihurtuz."

Eta zergatik guzti hau? Nire kikiltze honen motibu argi bat da berau. Baina ezin diot zergati horri aurre egin, nire kontu, soilik. Horri buruz pentsatuaz igarotzen ditut minutuak, nire egitamuko urrengo lekurarte heltzen naizen bitartena. Bost bizar ile beltz nabarmentzen diren tokira heltzen naiz, ile nabarmen hoietan abeslari batzu daudela imajinatuz eta inguruko ile gorri guztietan entzule sutsuak. Horrela ba, gizakien mundu hortako kontzertu modernoren bat fabritzen dut nire gogoetan.

" (...)
get up, stand up
stand up for your rights
get up stand up
don´t give up the flight.

(...)
Jaiki, ipini hadi zutik
ipini hadi zutik zure (eskubideengatik)
jaiki ipini hadi zutik
ez ezazu zure borroka
(bertan behera utzi)

Hauei esker, abeslari eta entzule hauei esker, noizbait onartuko nauzue zuen gizarte hortan. Eta guztia, amestutako guztia egi bihurtuko da."

Horrela pentsatuaz bukatzen dut nire zorri ibiladia. Eta esperantza honek poliki- poliki sendatuko dizkit nire zauri guztiak, eta noizbait zorri defentsa gabedun sentitzetik benetako GIZA ESKUBIDE sentituko naiz. Diskriminazio guztien gainetik sentituaz, arraza, kolore, erlijio, pentsakera,egoera ulerkor guztiak defendatuaz. Diru eta diruzale guztien boterearen gainetik. Gehiengoaren zati bat izanaz.

GUZTI HORRETARAKO ZUEN LAGUNTZA BEHARREZKOA ZAIT. ZUEN BORROKA NIREAREKIN ELKARTUAZ LORTUKO DUGU. DENOK BAT EGINAZ. NI ETA ZUOK GARA GEROA.

Mariasun eta Marisak, prentsaren bitartez, Eibarko Udaletxeak Astialdia eta Kultur animaziorako Zerbitzua adjudikatzeko asmoa zeukala jakin zutenean, berehala landu eta aurkeztu zuten beraien proiektua. Udalak ontzat eman zuen gazte hauen proposamena eta ondorioz urtebetako kontratua sinatu zuten. Horrela, 10 miloitako aurrekontuarekin Udaleko zenbait batzordek aurretik martxan jarritako zenbait programa gestionatu eta jarraitzeko ardura hartu zuten.

Hasieran Kultur Elkarte bat eratzea pentsatu bazuten ere zenbait kontsulta egin ondoren Ondasun Elkartearen sistema aukeratu zuten, beste gauza batzuen artean "egun osoa hemen ematen dugunez nondik bizi eta jan behar dugulako".

ASTIXA osatzen duten bi gazte hauek Magisteritza ikasketak bukatuak dituzte. Beraiek azaldu digutenez, "argi dago Magisteritzak ez daukala irtenbiderik, baina hala ere Magisteritzak balio izan digu beste arlo batzuk garatzeko posibilitatea dagoela ikusteko, eta guk aukeratu duguna, Aixialdi eta Kultura hain zuzen, izan daiteke horietariko espárru bat."

■ **Enpresa independiente eta ireki bat**

Nahiz eta une honetan beraien helburu nagusia Udaletxearen programa horiek seriotasunez eta modu egokian burutzea izan, ASTIXA enpresa independiente bat izanik, arlo ezberdinetara heltzeko ahalmena dauka. Marisa eta Asun-ek aditzera eman digutenez, "gure lana talde eta adin ezberdinetara zabaldu nahi dugu, zeren ikusten dugu, adibidez, enpresa pribatu eta banketxeetan badagoela kulturarako aurrekontu bat, nahiz eta gero azpiegitura edo pertsonal ezagatik bertan utzi".

Esan bezala momentu honetan Udaleko Euskera, Kultura eta Inguru Giro Batzordeek adjudikatu dizkieten zenbait programa gestionatzen ari dira: Euskera Zerbitzuak gure hizkuntza bultzateko xedearekin sortutako "Afariketan" eta "Gaztetan" egitarauak eta Uztaileko kolonia ireki-ak; Kultura Batzordeko "Inauteriak" eta "Olentzero eguna"; eta Inguru Giro Saileko "Zuhaitzeko eguna".

Asun eta Marisak esandakoaren arabera, "beraien lana pazientzia askoko lana da zeren jendea kontzientziatu beharra dago aixialdia ondo aprobetxatu daitekela kontura dadin, eta baita zirikatu ere. Era berean guk "al loro" egon beharra daukagu hutsune bat somatzen dugunean berehala zehozer erakargarria eskaintzeko'.

Beraiek ikutu dezaketen arlo anitz eta ezbedinen adibide modura orain dela gutxi Elgoibarko Institutoarekin egin dute ikas baidaia aipa dezakegu. Bi neska hauen proiektuen artean ikastaroen antolaketa eta inguruko beste herrietara heltzeko asmoa leudeke. Hala ere, beraiek aditzera eman diguten bezala, "oraindik hasi berriak gara eta oraingoz esku artean daukaguna ondo prestatu eta antolatu nahi dugu. Gainera egiten duguna oso material fungiblea da, proiektu bat diseinatzen duzunean helburu zehatz batekin egiten bait duzu; beraz hurrengorako beste gauza bat asmatu edo behintzat birmoldatu egin behar duzu, jendearentzat erakargarria izan dadin".

Astixa

GAZTE AUSARTAK

"Jendea kontzientziatu eta zirikatu beharra daukagu"

Joan zen hilàbetetik Eibarren guztioi zuzendutako zerbitzu berri bat daukagu, Astialdia eta Kultur Animaziorako Zerbitzua hain zuzen ere. ASTIXA da Mariasun Gandiaga eta Marisa Lapeirak aukeratu duten izen aproposa Kalbetoi kalean kokaturik dagoen bulego honentzako. Hain gustokoa duten lan hau aurrera eramateko Ondasun Elkarte bat eratu dute bi gazte hauen artean nahiz eta -beraiek dioten moduan- aberasteko asmorik ez izan. Hurrengo lerroetan irakurri ahal izango duzuen modura, beraien lana jendearen gustoak eta beharrak detektatzea da, hori bai, pazientzia piskatxo batekin.

ASTIXA
Denbora ezin delako galdu
ASTIALDIA ETA KULTUR ANIMAZIORAKO ZERBITZUA
Planificación, Gestión y Animación Socio-Cultural de tiempo libre
F. Kalbeton Kalea 5zb. - 3gr. - 20600 EIBAR - ☎ (943) 11 62 31

Egonaldiak familia euskaldunetan

Euskarak irabaziko du zuk ere bai, ikasle



Euskara ikasten ari zaretenontzako egonaldiak euskal familietan

Deia

Berriro ere, urtero bezala "Egonaldiak Familia Euskaldunetan" plangintza zabaldu da euskaraz ikasten ari direnentzat. Plangintzaren iraupena uztailetik azarora bitartekoa izango da, bakoitzaren egonaldia hilabetera mugatuko delarik, etxebizitzan zein baserrian. Ikaslegai orok 18tik 35 urtera bitarteko adina izan behar du eta izenemate-orriak Gasteizko Kultura eta Turismo Sailera zuzenduko dira, aurkezteko epea maiatzaren 31n amaituko delarik. Ikasle bakoitzak 15.000 pezeta ordaindu behar dizkio bera hartuko duen familiari.

Argibide edo informazio gehiago nahi izanez gero, interesdunek jo dezatela hurrengo lekuetara:

1. KULTURA ETA TURISO SAILera: Euskararen Sustapenerako Zuzendaritza / Weington Dukea, 2 / 01011 - GAZTEIZ; Tfnoa.: (945) 24 60 00.
2. LURRALDE ORDEZKARITZetara
   San Martín, 9 / 20002 DONOSTIA; Tfnoa.:42 65 20 / 21/ 22
   Gran Vía, 17 - 3.a / 48001 BILBO; Tfnoa.: (94) 4164411/22/33/99
   San Prudentzio, 8 / 01005 GASTEIZ; Tfnoa.: (945) 231824/74 - (945) 23 30 85
3. HERRIETAKO UDALETXEetara.
4. IPARRALDEKO HIRU ELKARTE hauetara:
   EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA/ Lota Jauregia - 64480 USTARITZE. — IKAS; 37 rue Pannecau - 64100 BAIONA. — PIZKUNDEA; 1 rue Marengo - 64100 BAIONA

FIRIN FARAN

BEKAK

■ 1991 urterako minusbaliatuentzako ikasketak burutzeko bekak eta laguntzak. Gobernuko Idazkaritza eta Georteekin Harremanetarako Ministeritzak egiten du dei. Laguntza egoera desberdinen arabera ezarriko da. 1991.eko urriaren 31ra arte da eskatzeko epea.

■ Endesa taldeak arte plastiko arloan ikasketak eskaintzen dituen bekak. Terueleko Museoak bertako Diputazioaren laguntzaz egiten du dei. Espainiako artistak edota Espainian bizi direnak har lezakete parte. 3.000.000 pztako diru laguntza emango da.1991.eko ekainaren 30era arte izango da epea.

■ Kreazio artisitikorako bekak, laguntzak eta bidai sariak. Eusko Jaurlaritzako kultura eta Turismo Sailak egiten du dei. Interesatua dagoen edonork eska dezake. Musika, Antzerkia, Dantza eta Baleta, Zinea eta Argazkia, Arte Plastikoak, Liburutegiak, Artxibo eta Museoak, Arkeologia, turismoa, eta kirolari buruzko ikerketa lanak ere izango dira arloak. 1991.eko urriaren 31ra arte izando da epea.

LEHIAKETAK

■ **Taldeen lehiaketa** - Getxoko Europear Jazzaldia. Uztailak 2tik 7ra. Lehiaketara Estatu barneko edozein jazz talde aurkez daiteke, zein ere den haren joera edo estiloa.

Antolatzaileak SEI talde hautetsiko dituzte haietarik, uztailaren 2 eta 3 egunetan joko dutenak.

Antolakundeak ez du onetsiko inolatan ere musikari batek edo gehiagok talde baten baino gehiagotan jotzea.

Lehiaketan hautaturiko taldeei 175.000 pzta eskainiko zaie bidaia, egoitza eta abarretarako.

Lehen saria 200.000 pzta., diska baten edizioa eta trofeoa; bigarren saria 150.000 pzta eta trofeoa: eta azken saria 100.000 pzta eta trofeoa. Ohar bat ere eman behar dugu: Lehiaketako irabazleak kontzertu bat emango du uztailaren 4ean; 150.000 pzta. honen paga.

Informazio gehiago nahi ezkero hona jo behar duzue:
Getxoko KUltur etxea
Nazioarteko Jazzaldia
Urgull kalea, z/g.
48990 Algorta-Getxo (Bizkaia

■ **IIArgazki Lehiaketa Nazionala:** "Balmaseda-Herria: Antonio Mielgoren Oroimenean": Partaideak Estatuan bizi esku hartu nahi duen edonor izan daiteke. Gaia librea da. Zuri-beltzez eta kolorezko argazkiak izan daitezke. Argazki paperaren neurriak ez du ardura, baina argazkiak 30 x 40 zentrimetroko kartulina batez indarturik egon behar da. Pertsona bakoitzeko hiru argazki eskatzen dira. Izenburua izan behar du. 1991ko ekainaren 1a baino lehen egon behar dute. Sariak ekainaren 30ean emango dira.

■ **Ferirako Kartelen Lehiaketa:** Edonork parte har lezake. Gaia librea izango da, 0´65 zentrimetrotako zabalera izan behar du eta 0´95eko altuera, margenak kontatu gabe. Kartelean lema hau joatea beharrezkoa da: "FERIA DE ALBACETE"/DECLARADA DE INTERES TURISTICO NACIONAL/ 7 al 17 de Setiembre - 1991. "Eta Albaceteko eskudoa joan beharko da. 750.000 pztako saria egongo da. Epea Maiatzak 31an amaitzen da. Hamabost egun beranduago emaitza jakinaraziko da.

■ **Santa Lucia Argazki Lehiaketa.** Estatuan bizi den edonork parte har lezake. Gaia librea da. Argazkiak B/N-n izan behar dute biratu monokromoak.

Argazkien tamaina 18 x 24 eta 30 x 40-ren artean egon behar da. Gainera kartulina batez hornitua egon behar da, hau izan behar delarik bere neurria: 30 x 40 zentrimetro,e ta 35 x 45 zentrimetrotako kartoizko bi plantxen artean joan behar dira argazkiak. Hona bialdu behar dira lanak: TALLER DE FOTOGRAFIA DEL ATENEO MUNICIPAL DE Sta. LUCIA. C/Poema la Maleta nº16, Las Palmas de G.C. Islas Canarias, tlf: 75-48-00. Lehenengo saria 75.000 pzta; bigarrena 50.000 pzta.; hirugarren saria 25.000 pzta.; eta kolekzio hoberenari 75.000 pzta.

IKASTAROAK

■ **Haitz eskalada**

Santa Barbara, Txindoki eta Eginoko eskalada eskolak emango dute ikastaroa. Bi maila egongo dira: hasten direnentzat eta esperientzia gauzatzea nahi dutenentzat. Maiatzak 11, 12, 18 eta 19an izango dira ikastaro egunak. 9an arratsaldeko 8etan Donostiako Kresala Elkartean Euskalerria K.9-behe: Ikastaro eta irakasleen aurkezpena izango da.

■ **Txalaparta ikastaroak.** Ekainaren 20 arte. Izen ematea, Herriko Kulaturala eta Ilbehera tabernetan egin daiteke.

SAYOA
K. A. F. E. T. E. G. I. A.
Giro eta trago edarrak
Untzaga Plaza, 8 EIBAR

Dena etxe barrurako
Horman sartutako armairuak
Futoi aldagarriak, Tatamiak...
Bista Eder, 3 Tel.: 118899 Eibar

Zagora Hizkuntzen liburudenda
Arragueta, 7 Tfnoa. 12 72 21
E i b a r

Kili Kili
Gosariak
Plater honbinatuak
Goizeko seietatik zabalik
Iratxurtzea Tfnoa. 11 24 01

umea
Umeen eta gazteen arropak
Errebal, 16 tfnoa. 113164 EIBAR

CASTAÑO
ILEAPANDEGIA
• Ezkontzetarako orrazkerak
• Ilea ez jausteko
• Depilazio elektrikoa
• Solariuma
Isasi, 9 - 3º Tfnoa.11 29 67

SENDAGILE
KABINETEA
24 ordu eten gabe
Telefonoz 11 84 82
Zuloagatarren, 5 - 1º EIBAR

Laurel & Hardy Pub
Untzaga Plaza 11 Tfnoa: 11 10 15 Eibar



Jorge Lasuen

Mundu aurreratu batean bizi gara. Horregatik esan dezakegu hainbat eta hainbat abantaila izan arren, arazoak ere sortzen direla, eta arazo horiek gehienetan pertsonek sortzen dituzte edo pertsonen artean ematen dira. Askotan arazo hauek oso gogorrak bihurtzen dira. Horretarako arlo nagusi bat dugu arazo hauek konpontzeko. Arlo hau Zuzenbidea da, eta Zezenbidearen lege nagusienak "pertsona guztiak berdinak dira legearen aurrean" dio.
Zuzenbidea aurrera eramaten dutenak epaileak, abokatuak dira. Mundu hori nolakoa den ikusteko Eibarko abokatu batekin hitzegin dugu, Jorge Lasuenekin:

Abokatu gaztearekin berbetan

Eta Kitto: Nondik dator zure bokazioa abokatua izateko, zergatik

Jorge Lasuen: Ez dut esango txikitatik. Ikasketak hasi nituenean helburu hori nuen. Ez naiz saltsero bat, baina beti gustatu zait zuzenbidearen mundu hori eta gogoz hartzen duzu gustatzen zaizun lana. Zergatik? Ez dakit, azkenean ez diozu zure buruari galdetzen zergatik sartu zaren leku batean eta gustora zauden.

Eta Kitto: Non egin zenituen ikasketak?

Jorge Lasuen: Donostiako fakultatean. Donostian 5 urte dira, eta ez dago espezializaziorik. Nire espezializazio gehiena lanbide arazoetan ematen dut. Hala ere, azken aldi honetan arlo guztiak interesatzen zaizkit, zibila, matrimoniala, penala..

Eta Kitto: Zenbat urte daramazu lanean?

Jorge Lasuen: Ekainean urte bat eta erdi egingo dut.

Eta Kitto: Zein bulegotan zaude lanean?

Jorge Lasuen: Esteban Eguren eta Jose Miguel Ciallegas-en bulegoan ari naiz.

Eta Kitto: Zein funtzio betetzen duzu zuk bulegoan?

Jorge Lasuen: Era guztietako arazoak konpontzen ditut. Nire ustez beste edozein abokatu-bulegu batean bezala. Esperientziadun abokatuak daude bulegoan eta hasiera baten "pasante" deitzen zaiona ere bai. Azkenean berdin da zer izen jarri, beraiei lagundu eta kasuak ikusten dituzun neurrian ikasi, kasua nik bakarrik eraman arte.

Eta Kitto: Justiziaren aurrean jende gazterik badago?

Jorge Lasuen: Hemen, Eibarko epaitegian gazte ugari ikusten ditut. Hain zuzen ere, Eibarko epaile gehienak gazteak dira, 30 urte baino gutxiago dutela ziur. Bai epaile, fiskal eta abokatu ugari ikusten dira. Ez dakit hurrengo "hornada" izango garen, baina horrela da,eta ono ikusia dagoela uste dut.

Eta Kitto: Desberdintasunik badago gazte baten defentsan eta nagusi baten defentsan?

Jorge Lasuen: Ez da desberdintasunik ikusten. Argi dago adina alde batetara utziz, pertsona guztiek dituztela eskubide berberak. Hau idatziz gertatzen da, eta praktikan ere horrela da.

Eta Kitto: Nolako etorkizuna ikusten diozu zuk abogadutzari?

Jorge Lasuen: Etorkizun ona ikusten diot. Nik uste dut baietz. Esan daiteke Eibarren abokatu asko dagoela eta orduan konpetentzia handia dago. Baina saiatu eta gogoz joanez gero, norberak bere txokoa topatzen du zuzenbide munduan. Orduan argi dago etorkizuna dagoela. Gainera "hornada" berria gatoz eta besteak ere lan egin beharko dute.

Argi dago modan dagoen ikasketa bat dela. Nik ez dut uste urte batzuk pasa ondoren gehiegi izango garenik. Oraintxe bertan hainbeste abokatu baldin badaude eskaera handi bat dagoelako da. Jendeak abokatuak eskatzen ditu. Arazoak maila guztietan aurkitzen dira eta horregatik maila guztietan konpondu behar dira.

Eta Kitto: Justizia beti errugabeen alde al dago?

Jorge Lasuen: Ez. Batzutan hori ez da gertatzen, besteak argiago jokatu duelako. Askotan formaltasun batzuk ez dituzulako kontutan hartu edo zure bezeroak ez dituelako arazoak ondo argitu.

Batzutan alferrik da saiatzea, zeren zuk badakizu kasua ez dela aurrera aterako. Argi dago legeak egunero partzialki aldatzen ari direla. Oraintxe bertan daukagun kode zibila XIX. mendekoa da. Kontutan eduki behar dugu gauza bat oso garrantzitsua dena, pertsona guztiak ez direla ados egongo legeekin nahiz lege zahar bat izan, nahiz lege berri edo berriztu bat izan. Ikusten dugu, orduan aldaketak egin behar direla eta beharrezkoak direla, baina aldaketa hauek atzetik datoz. Kontutan eduki behar da lege bat aldatzeko jendearen presioa beharrezkoa dela eta jendeak presio hori egin ondoren eta, gogorra izan baldin bada, lege hori azkenean aldatu egingo da.

Eta Kitto: Etorkizunera begira zer asmo daukazu?

Jorge Lasuen: Oraindik goiz da erabakitzeko. Beno noizean behin pentsatu dut baina ez serioski. Nire ustez, azkenean nire bulegoa jarriko dut.

...eta kittok! Gomendaturik



Beste talde berlindar bat Uda alderako

Azkenengo urteetan, Euskal Herria eta Berlinen artean, indar handia hartzen ari den harreman bat sortu da eta harreman horren adibiderik garrantzitsuena Eibar da, gure herria bait da, talde alemanak datozenean, beraien ohizko bizilekua.

Ezagunak egiten zaizkigu HIRN edo LUNATICS taldeak, eta baita ere talde beraietako petsonak. Harreman hau konfirmatzeko nahikoa da E.H. SUKARRA taldea-begiratzea, bertan HIRN taldeko Mark Reminatorrek parte hartzen bait du (momentu honetan Eibarren dago, hilabete hauetan izango dituzten kontzertuetan jo ahal izateko).

Baina gauza bat argi dago, alemaniarrei Euskal Herria asko gustatzen zaiela eta HIRN eta LUNATICS bi aldiz etorri badira gira egiten, orain beste talde bati tokatzen zaiola. Bere izena SLIPS REBENGE da.


Igaro den Aste Santuko jaietan, E.H. Sukarrak Berlinen izan duen girara joateko aukera izan dugu, eta bertan ezagutu dugu aipaturiko talde hau. Bi kontzertutan ikusi genituen, beraietariko bat E.H. Sukarrarekin izan zelarik, eta esan behar, bertara joan ginen guztiok asko flipatu genuela SLIPSen zuzenarekin.

Eibarrera bueltatzean, Maxi Single batzuk ekarri genituen. Hauen ondoan zuzena askoz eta indartsuagoa iruditu zitzaigun, baina dena dela, Maxia oso ondo dago eta nahiko argi isladatzen du gero beraiek zuzenean egiten dutena, nahiz eta dibertsioaz hitzegiterakoan beste maila batetan aritu.

Abeslariak, AC/DC koa izandako BON SCOTT gogorarazten digu. Bai beraren jazteko eran, baina batez ere bere abesteko eran. Nahikoa da esatea, talde famatuaren bi bertsio jotzen dituztela zuzenean, eta nola gainera!

SLIPS REVENGEren gira Uztailerako dago programatua eta uste dugu, beraiek ikusteko aukerarik minimoena aprobetxatu egin behar dela, musika ezin hobeaz denbora alai bat pasatzeko aukera ezin hobea bait da. Zuen zai gaude!

Denbora pasa



EZKER ESKUIN: 1.- Mintzakidea. Biloa. 2.- Alajainkoa, modu xuabean. Gabirai. 3.- Gipuzkeraz katea. Emakumeekiko hika. Objektua. 4.- Pluralean, eguneroko jakia. Zil. Aluminioaren sinbolo kimikoa. 5.- Nortasun agiria. Bozateko biztanlea. Noka, naiz. 6.- Harremana. Bostgarren konsonantea. Hausturaren onomatopeia. 7.- Ez eme. Ez du ikusten. Gehiegizkoa adierazteko. Garai. 8.- Musikaren oinarria. Zurrutero. Non kasoan. 9.- Uranioaren sinbolo kimikoa. Nafarroako herria. Problema.10.- Zubereraz burlati. Bizkaiko eskualdea.

GOITIK BEHERA: 1.- Barrentasun, barnatasun. 2.- Zortzi garrodun zefalopodo. Bokala. 3.- Erromatarren Hizkuntza. Txardina bakalau. 4.- Ondoeza. Eritasun kutxakor. 5.- Atzizki femeninoa. Benafarreraz, eltze konpontzailea. 6.- Atzizkia. Erregai mota. 7.- Inuxente. Bokala. Infusio. 8.- Ezagutzen dute. Ukatzeko. 9.- Bigarren bokala. Baieztapena indartzeko esklamazioa. 10.- Lehenengo biak. Soroaren sinbolo kimikoa. Lizarrako ibaia. Roentgen. 11.- Itxoin. Barazki mota. 12.- Errenkadak, Modua. 13.- Apal. Edari edangarria. Kanpo. 14.- Eratzan. 15.- Larru. Gorputz metrikoa.


Agur t'erdi irakurle

"... eta Kitto" inkestaren emaitzen komentarioa

Egia esan, alfer samarrak zaretenik ezin ukatu. Azkenean inkesta gehiegirrik ez genuenez jaso telefonoz jardun beharra eduki dugu eta esan beharra daukagu pozik eta kontent egoteko moduko erantzunak jaso ditugula, azken batean eduki eta kontenidoa zuen gustokoa delako.
Guretzat inkestak balio handia dauka atalei eta estetikari buruzko eritziak jasotzeaz gain sugerentzia edo proposamen dexente ere egiten zaizkigulako. Mila esker.
Hona hemen, ondoren, heldu zaigun informazioaz egin dugun irakurketa.

Forma, aurkezpen, estetikaz:

Orokorrean harturik gehiengoak ondo ikusten du formato, maketazio eta estetikaren arlo hau. Hala ere, badira formatoa handiegia dela esaten dutenak, paperaren kolorea, berdea, gustatzen ez zaienik eta ilustrazioak gehiago zaindu behar direla diotenak.
Oraingoz agindu dezakeguna zera da. Alegia ilustrazioak hobetzen saiatuko garela; dena den, kontutan eduki behar dugu profesionaltasun eta baliabide mugatuak ditugula.
Bestalde, eta formato eta paperaren koloreari dagokionean, gerora begira badugu bestelako proiekturik; horrek aldaketa orokorra ekarriko luke. Baina, gaurkoz daukagunari eutsiko diogu eta gure proiektu berria sakondu eta onartua denean iragarriko dugu.
Esandakoaz gain, badaude bestelako sugerentzia bi askok aipatuak; alegia, orri ggehiago behar dituela " ... eta Kitto"k , eta maiztasun edo frekuentzia handiagoz kaleratu beharko litzatekeela.



"... eta Kitto"ren gainean jakin nahia asetzekotan gero eraberritzeko helburuarekin egin da galdeketa

Atal eta sekzioen gainean

Gehien irakurtzen den orrialdea azkena den arren, badira interesa sortzen duten atalak. Jakina, generazioen arabera. Gazteen artean "Gazte gara gazte"k eta "urak dakarrena urak daroa" sekzioek erakarmen handia daukate. "Gure artean" atalak, ostera, ez hainbeste, eta alderantzizkoa gertatzen da nagusien artean. Argi eduki behar dugu 8 orrialdearekin milagrorik ezin dela egin, eta belaunaldi guztiak izan behar ditugula gogoan.

Bestalde, lehen orrialdeak daukan garrantzia guztiz kontutan edukitzekoa da, azken 8-10 zenbakietan hartutako joera berriaren onarpena damaigutelako zuen erantzunek.

Sugerentziei dagokienean, azpimarragarrienak aipatzearren, Eibarko historia dibulgatzeko atal bat irekitzea batek baino gehiagok eskatu digu, hau Eibarko euskarari loturik. Hori dela eta, esan beharrean gaude, gure gestioek euren fruitua emango dutela eta laister batean atal berezi bat irekiko dugula.

Kontutan hartzeko beste eskaera bat "dohaineko iragarkiak" atalarena izango litzateke, hau ere, sakonduko dugularik.

Beraz, eta oro har, edukiari buruzko aldaketak horiek lirateke, osterantzean irakurlegoak orekatua eta interesgarria ikusten du gure produktua.

Juanita Unzueta, ballet irakasleakin berbetan

Rusian ikasi ta Eibarren erakutsi

Dantzan eittia kulturia ta izakeria erakusteko modu bat da. Dantza batzuk herrikuak bertakuak dira ta beste batzuk kanpuan ikasitakuak. Halan agertzen jaku Rusian bizitzen urte askotan izan zana ta handik etorrittakuan eibarren dantza–eskolak emon dittuan Juanita Unzueta. Eibarko Urtzaile edo Fundidores kalian balleteko klasiak emoten bere bizitza guztixa emon dau Rusiatik etorri zanetik. Kultura arlua Eibarren penagarritzat agertu dosku. Jentiak dantzara, teatrora edo beste gauza batzuk eittia ta denporia sakrifikatzia baño nahixao dau beste batzuk eittia ze, gaur egunian prisaka bizi gara.



"Dantza barruan dantza diferente asko daoz ta, dantza bakoitxak, bere dantzatzeko modua dauka. Baiña dantza barruan zeure barrua, zeu zelakua zaran be ikusi ta ikasi eiñ bihar dozu".

Dantza–eskolan musika klasikua entzuten da ta ume batzuk dantzan dabizen bittartian beste batzuk jantzixak jazten dabez beste kuarto batian harek urtetzen debenian heurek dantzan hasteko ondoko gelan, azkenengo egun batzuten ta laguntzailliak ez daozenian Juanitak emoteittu klasiak gaur egun jubilauta egon arren. Juanitak Rusian urte asko pasau zittuen ta han gauza asko ikasi, hasikeria hala izan zan: "1.937 garrenian ni anaiakin juan nitzan. Bixok bakarrik juan ginan. Hogeita amazazpigarrenian gosia haundixa zan, ta gose asko pasatzen genduan. Gu hara heldu giñanian haura hau baño hobia zan. Gurekin oso ondo portau zian, oso ondo emoten ezkuen jaten ta danok egon giñan eskoletan. Batzuk ruso be ikasi zeben. Hobetotxuao edo okerrago, nik ez neban oso ondo ikasi baña anaiak bai. Han oso ondo edukau ginttuzan ta handik danetarikuak urten zeben, bai obreru ta bai karreradunak."

Oso ezbardiña zan Rusia?

"Gu umiak giñan. Nik pentsatzen dot dana izango zala ezbardiña, baña zelan gu umetan juan giñan ta gero bertakuekin batera hasi giñan, hona etortzen giñanian igartzen genduen, orduan hangua onaua zan."
Diferentzi haundixa kulturan igartzen zala diño gure Juanitak batez be berbetako mokuan: "hamen zarata batian berba eitxera ohittuta gaoz baña han jentiak ixillao eitten dau berba. Ez dot pentsatzen kultura ezberdintasuna bakarrik izango danik horren arrazoia, gure tenperamentuak be badaka zerikusiza altuao berba eitxiakin. Gure izateko modua da hor zerikusixa dakana.
Gero, 1982xan ta 1984an be egon giñan han. 82ttik aurrera igartzen zan ezbardintasuna bizitzeko moduan. Gentiak han eztau hamengo moduan jazten, baña heuren etxietara juan ezkero maixak ta jartzen zetsuezenian, hain zan harreria ona...nik jantzixari sekula eztotzat inportantziarik emon eta heurekin berbetan, gu baño jente trankillaua zan, baña horren kulpia guk baño gehixao telebisiñuak daka ze berak jaten dosku gure izakeria konsumismua ta holakuekin."

Zelan ikasi zenduan dantzan?

Rusian bertan ikasi neban, baña Eibarren biharra nekalako hasi nitzan. Gogo haundixa nekan. Amesetan asko eiñ neban nik Moskun egon nitzanian. Eibarren zeozer eittekuakin niharduen beti. Eztakitt, ilusiño haundixa nekan. Dantzia neri ume–umetatik gustau jata. Nere amak esaten zeban: –honek umionek matematiketan dantzan eitten deban moduan eiñgo baleu, ze ondo ibiliko nitzan ni!!. Beti izan dot maitte musikia.
Dantza asko eiñ dogu Moscun, ta badakizu zer gehizen? Euskal Herriko dantzak. Hango maixuak ta jostunek trajiak detalle guztixekin eitten zebezan. Beste dantza batzuk be dantzatzen genduazen: Sevillakuak, Galiziakuak eta beste batzuk be bai dantza klasikuaz kanpo. Euskadiko dantzak ta aurreskua hamendik eruan genduazen."

Zelan agertzen da dantzia Eibarren?

"Eibarren dantzari onak urtetzia oso gatxa ikusten dot. Zergaittik? Umiek etxeko lan asko dakez ta astian bi ordu dantza eginda eziñezkua da milagruak eittia.
Ni lanian hasi nitzanian Rusiako dantzak be ikasten genduazen. Oso pozik etortzen dia umiak hona."
Eibartik kanpo dantzan eitxen zebenian beti zeozetarako dirua batzeko eitten zebela diño Juanitak, ta gurasuak beti oso pozik ta ilusiño guztixakin, batak bestiari laguntzen zetsala jantzixak ondo eitten ta umiak dantzan ikusteko.
Laguntza asko emon zebenen artian eibartarrak be badira, ezin dira aztu Eibarko Goiargi Emakumien Elkartia ta Sarasuak zuzentzen zeban korua.

Zer da inportantia dantzan?

"Dantza barruan dantza diferente asko daoz ta, dantza bakoitxak, bere dantzatzeko modua daka. Baña, dantza barruan zeure burua, zeure barrua, zeu zelakua zaran be ikusi ta ikasi eiñ bihar dozu.
Bakarrik dantzatzen daben pertsona bat, solistia dana, hartzen badozu edo hiru solista batek eitxen daben dantzia bera eitten ipintzen badozuz, hirurek eiñgo dabe dantza bardiña baña interpretaziño diferentiakin. Musikiak bere esanguria daka baña zuk zeure sentimentuak dakazuz ta zuk sentitzen dozuna reflejatzeko modu bat."

Zelan ikusten da kulturia Eibarren?

Eibarko kulturia ta hori kanpuan erakusteko daon aukeria, ta horren inguruan agertzen dan girua nahiko txarto agertu dosku Juanitak: "neretako horriblia da Eibarren eitxen dabizena: Amaya bat gakaun, Amaya teatrua...nik negar eiñ neban Amaya bota zebenian, estakitt zelan bota leikian Amaya!! Herri erdiko teatrua zelan bota leikian ze, oso kamerino onak zekazen, neretako hori Eibarren eiñ dan krimenik haundixena izan zan kulturiandako. Oiñ tabernia bezterik ez dao ta teatro batek etorri bihar badau Unibersidaderaño juan bihar dau.
Gaur danok aintxitxiketa batian bizi gara ta eztao ezertarako denporarik. Hiru edo lau ordu libre euki ezkero ez dozu nahi horrek sakrifikatzerik, haiñ bizi da jentia bizkor ze eztao denporarik ezetarako.
Gero telebisiñua be badao, horrek kajiorrek haiñ jan gaittu ze danek komerzializaziñuak emoten daben personalidadia euki bihar dabe ta ez bakoitzak beria."

- ★ **"Rusian ondo edukau ginttuezan ta handik danetarik urten zeben, bai obrero ta bai karreradunak."**
- ★ **"Ametsetan asko eiñ neban nik Moskun egon nitzanian. Eibarren zeozer eittekukin niharduen beti."**
- ★ **"Ni lanian hasi nintzanian Rusiako dantzak be ikasten genduazen. Oso pozik etortzen dia umiak hona."**
- ★ **"Nik negar eiñ neban Amaya bota zebenian, eztakitt zelan bota leikian Amaya!"**

MUÑOA
ZURE AUTOARENDAKO ORDEZKO PIEZAK
BIDEBARRIETA 14, 16.
TFNOA. 11 13 17
11 62 28

Pastelería San Andrés
BIDEBARRIETA,38
TELF. 11 79 73
EIBAR
Gozotegia
Pastelak, Bonboiak eta izozkiak
Bidebarrieta, 28 Tfnoa: 11 78 73

HISPANIA SEGUROS
Fernando Lejardi López
Plaza Barria, 8-1° Eak. Tfnoa: 11 11 49
EIBAR

STRADA KARROZERIAK, S.A.L.

Otaola, 22
Tfnoa. (943) 11 70 26
EIBAR
Eulogio Estarta
Tfnoa. (943) 74 07 12 - 16

XXVI. EUSKAL JAIA

Egitaraua

Maiatzak 17 ostirala: LETRAKIT erakusketaren hasiera.
Ramon SARASUAren "La musica en Eibar - Eibarko musikoak" liburuaren aurkezpena eta sorpresa musikala. Arratsaldeko 7etan Udaletxeko pleno aretoan.
Aurkezle eta hizlari: Jose Antonio ARANA MARTIJA

Gaueko 10´30etan "Juan Bautista Gisasola" kontserbatorioan Xabier AMURIZA eta Anje DUHALDE. KANTARI diska berriko kantuak.

Maiatzak18 larunbata: Eguerdiko 1etan EUSKAL HERRIKO ETNOGRAFIAren erakusketaren inaugurazioa.

Maiatzak 21 asteartea: EUSKAL SUKALDARITZA ETA EIBARTAR SUKALDARI BERRIAK. Hitzaldia. Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7etan. Hizlariak Karlos Argiñano eta Eibartar sukaldari berriak.

Maiatzak 23 osteguna: Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7etan hitzaldia BERTSOLARITZA GAUR ETA BIHAR gaiarekin Xabier AMURIZAren eskutik.

Maiatzak 24 ostirala: Gaueko 11etan Untzagan ikus-entzuteko proiekzioa "Indalezio Ojanguren" Pedro GONZALEZek aurkeztuta.

Maiatzak 25 larunbata: EIBARKO DANTZARIEN EGUNA
• Goizeko 12etan KEZKAko lokaletik Untzagaraino kalegira.
• 12,30etan Untzagan dantza saioa.
• Arratsaldeko 6,30etan dantza solte txapelketa Untzagan, 14 urtez azpiko bikotearentzat.

Maiatzak 28 asteartea: HEMENGO MUSIKAREN MOBIDA AZKEN 10 URTEETAN ETA GEROA. Mahaingurua arratsaldeko 7etan Katu Kale tabernan. Partaideak: OSKORRI, SU TA GAR, HERTZAINAK
Moderatzaile: PORROT.

Maiatzak 30 osteguna: "Juan Bautista Gisasola" kontserbatorioan arratsaldeko 7etan poesia errezitala Gerardo MARKULETA eta Arantzazu LOIDIren eskutik.

Maiatzak 31 ostirala: Arratsaldeko 8etan Untzagan kale antzerkia TAUPADA taldearekin. ETA ETXEAN ZER? obra eskainiko dute.

Ekainak 1 larunbata: Arratsaldeko 7etan Untzagan KIXKA txontxogilo taldeak BIKOTE BIURRIA obra eskainiko digute.
Arratsaldeko 7,30etan "Juan Bautista Gisasola" kontserbatorioan disko-foruma Txomin ARTOLAREKIN.

Ekainak 2 igandea: EUSKAL JAIA
• Goizeko 11,30etan Urkizun dantza talde guztiak bilduko dira.
• 12etan kalegira Untzagaraino
• 12,30etan partaide guztiei txalapartaren ongietorria eta dantza saioa.
• 1etan taldeak Eibarko auzoetan zehar dantzak aurkeztuko dituzte.
• 2etan bazkaltzeko asmoz umeen banaketa elkarte desberdiñetara.
• Arratsaldeko 5etan, Untzagan dantza saioa berezia, Euskadi osoko dantzarekin.
• 6.45etan Larraitz dantza popularra.
• 7etan partaide guztien agurra.
Egun osoan Eibarko kaleetan ARRASATE eta TXANTREAko dultzaineroak eta ZUMAI fanfarrea ibiliko dira.

DANTZA TALDEA	HERRIA
KEZKA	EIBAR
AMALUR	EIBAR
MOLLARRI	ZARAUTZ
BETI GAZTE	ZUMAIA
GAZTE ALAI	MALLABIA
BESAIDE	ELORRIO
ILUNTZE	MATIENA
ANDRA MARI	GALDAKAO
TXINDURRI	ERMUA
TXORITXU ALAI	DURANGO
LARRAITZA	LIZARRA
GURE TXOKOA	BERA BIDASOA
IRAIN	LESAKA
ANGELUARRAK	ANGELU
UNTZUETA	ARETA

Maiatzak 18tik Ekainaren 2arte, Lan Kide Aurrezkiaren aretoan (Julian Etxebarria kalean) erakusketa: EUSKAL HERRIKO ETNOGRAFIA
Ordutegia; Astegunetan: Arratsaldeko 7etatik 9etara
larunbata eta Jaiegunetan: Eguerdiko 12etatik 2etara
Maiatzak 17tik 21era LETRAKIT Euskal Letren erakusketa Txaltxa Zelai parkean.
ORDUTEGIA: 9etatik, 13etara eta 15etatik 20etara.



Euskal Jaia Eibarren

Urtero bezela ailegatzen zaigunez, ekintza kultural eta herrikoi honekin zerikusia duten zenbait pertsonekin jarri gara harremanetan.

Iñigo Gerra, jai hoentako arduradun batek dionez, lehendik hona asko aldatu da. Beraren ustez, Euskal Jaia ez da bakarrik dantzak ekartzea, baizik eta antzerkiak, umeen jokuak, kantak, hitzaldiak eta abar ere sartzen dira. Azken finean,euskal kulturarekin zerikusia duten gauza guztiak. Iñigok dioen bezela "guk betetzen dugu Eibarren dagoen hutsa."

Alberto Alcoba, Club Deportiboko kultura arduradunarengana jo dugu, oraingo joera kulturalistaz eta Euskal Jaiaz galdetuz. **Albertor**en ustez, "Euskal Jaiaren giroa beti egon da. Franco garaian politikarekin zerikusi gehiago zuen. Gaur egun kulturak ez du indarrik, apatia dago. Behar bada "Korrika" bezalako ekintzei garrantzi gehiago ematen die jendeak. Azken fienan, beste zentzu bat dutelako holako gauzak."

"Amalur" dantza eta txistulari taldeko arduraduna den Jose **Luis Perez Sarasketari** ere egin diogu galdera bera. Berak esan digunez, "Euskàl Jaia da erakustia herrixari ze ohitura edo ze dantza daozen, bai abestiak, bai jantziak ...." **Jose Luis**ek aipatzen duenez, "gauza asko eiñ leikez", eta aintzina egiten ziren hainbat aipatu dizkigu: burdiak, dantzak, abetiak etab. Beraren ustez, "Euskal jaia oso ikusgarria zan, zeren jendea oso kontzentziatua zegoen, diktadurak horretan eragin handia zuelarik." "Herri guztiak hartzen eban parte", esaten digu Jose Luisek. Orain jendea beste gauza batzuetara dedikatzeak, euskal kulturaren galpena ekarri duela dio. Eta prozesu hau ez Eibarren bakarrik, baizik Euskal Herri osoan ematen da.

Baita gaur egun "kezka"ko arduraduna den **Pablo**rekin hitzegin dugu. **Pablo**ren eritziz jendeak euskaltasuna galdu du. Eta horrela azaldu digu: "eta jai horrek horretarako balio dau, berpizteko roilo hori. Lehen euskaltasuna "roilo majua zen". Eta oiñ jentiak ikusten ditu roilo majuak beste gauza batzuetan. Euskal gaik edo gauzak lehen baino inportantzia gutxiago dauka jentiandako, nere ustez". Gogoratu digu baita ere, Euskal Jaia ez dela egun bat, "urtean behin egiten den gauza bat da, Eibarko jentiak euskal roiloak eta... zelan dabizen ikusteko"

Gaur egun Euskal Jaia Deportiboko Kultura Batzordeak eta Kezkako umeen gurasoak antolatzen dute, Udaleko Euskara Batzordearen laguntzaz eta Kultur Bideetan programaren babespean.

Zelan ikusten duzu maiatzean ospatzen den Euskal Jaia?



Fernando Loidi. 29 urte. Ertzaina
"Potentziatu behar den zerbait dela uste dut. Udaletxeak hartu behar luke hortan parte nire ustez, jai hauek finantziatuz eta laguntza eskeiniz. Lehen behintzat elkarteek besterik ez zuten laguntzen. Klub Deportiboak eta halakoak,eta ez dut hori bidezkoa ikusten."



Jaione Garaialde. 22 urte. Ikasten.
"Oso ondo dago Euskal Jaia, ni behintzat urte askotan ibili izan naiz hortik zehar dantzan,eta ongi iruditzen zait beste herrietako taldeak hona ekartzea. Txarrena da geroz eta jende gutxiago joaten dela dantzan ikastera, ez da lehengo moduan. Mantendu beharko litzatekeen gauza bat da."



Josefa Aiarza, 64 urte. Jubilatua.
"Euskal Jaixan inguruan dana da politxa! Jai guztiak dira politxak euskaldunak baldin badira, gainera geure geuriak dira, ez kanpotik ekarritxakuak, ezta hala?"



Nerea Zamakola. 9 urte. Ikaslea.
"Asko gustatzen jata jai hori, oso ondo pasatzen dot egun horretan. Lehen ibiltzen nintzan Amalurren dantzan baina oiñ ez dakat denborarik, bestela joango nitzake."



Luis Martinez. 67 urte. Jubilatua.
"Gaur egun galduta daoz pixkat euskaldun dantzak, diskoteketan nahixao dao jentiak ta. Lehen ibiltzen giñan neskekin dantzan ta holan..."



Gillermo Valera eta Joakina Lorenzo. 28 eta 20 urte. Lanean.
"Oso ongi prestatutako jai bat izatetik aparte oso garrantzitsua da Euskal Herrian eta mantendu beharko litzatekeela uste dugu."



Angel eta Yoli. 21 eta 20 urte. Lanean.
"Egia esan zer denik ere ez dakigu Euskal Jaia, Barakaldokoak bait gara. Badakigu bertan antzerako zerbait ospatzen dela, baina ez dakigu horren berri."



Jose Antonio Larrea. 42 urte. Lanean.
"Behin baino gehiagotan antolatzen ibilitakoa naiz ni. Uste dut eibartarrengan lehen zegoen interesa pixka bat galdu egin dela. Klub Deportiboari esker uste dut mantentzen dela jai hau."

Maiatzarako - Agenda

KIROLA
MENDI IRTEERAK
05-11an: Aguera - Balmaseda
06 - 1an: Balmaseda - Sodupe
K. Deportiboko Mendizale Taldeak Antolatua.

ZIKLISMOA: 05.5an: "PROMESEN KRITERIUM"a 2. urteko Kadeteak. Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatua.

ERAKUSKETAK
TOPALEKU Erakusketa Aretoan. (Zuloagatarren Kalea)
05.5rarte: Marino Plazaren Keramika-lanak.
05.6tik-12ra: Eibarko Zenbait Presoen Eskulanen Bilduma.
05.3tik-24ra ARGAZKIAK. EIBAR. GAUR ETA ATZO. Udal Kultur Aretoan. Kultura Batzordeak antolaturik
05.1tik-15era: Yanne Devoyan Autorearen lanak. L.K.A.ren erakusketa Aretoan.

ROCK KONTZERTUA
05.11an: TALDEA: Barcelonako "LOS SENCILLOS"
LEKUA: Ipuruako Polikiroldegia. ORDUA: 22.30
SARRERA: aldez aurretik: 600 pta./takilan: 700 pta.

TEATROA
05.23an TALDEA: "TEATRO DE LA DANZA DE LA HABANA". TEST Antzezlana. Unibertsitatean gaueko 8.30etan.
SARRERA: 500 pta./ Langabetu eta ikasle: 300 pta.

LETRAKIT
Maiatzaren 17tik-21ra
Euskaltzaindia eta Eusko Jaurlaritzaren babespean, UNESCO-ren Alfabetatzearen Nazioarteko urtearen inguruan Euskara Batzordeak antolatzen duen ERAKUSKETA Txaltxa-Zelaian 3 Modulo jarriko dira:
1. Moduloa. 5 eta 12 urteren arteko haurrentzat. Literatur pertsonai klasikoak herritarren artean zabaltzea nahi da Peru Abarka antzeztuko delarik. Modulo honetan Ostatua, Ibaia, Ola, Eliza e.a. azaltzen dira.
2. Moduloa. Hemen gaur egungo autoreak erakutsiko dira. Gehienbat gazteei zuzendua dagoelarik.
3. Modulo Orokorra. Alfabetatzearen 30 urteei buruzko erakusketa orokorra.
Autore Klasikoen aurkezpena: Orixe, Etxepare...
Herriko txokoa: Eibarko alfabetatze historia txikia. Bertan jaio diren autoreak, e.a....
Ordutegia: 9retatik-13etara eta 15etik-20tara.
Taldeka joan nahi dutenentzat ordutegi berezi bat dago: Dei 118064 telfonora.
Euskara Zerbitzua.

DIA DAS LETRAS GALEGAS
Galizako Kultur Etxeak antolatuta Maiatzaren 11tik 19ra ospatuko da. Musika emanaldiak: Os Galaicos, Raices Riberas, Los Aquilinos,...
Kirola: Herri maratoia, Xakea, Chaves, saskibaloia, futbola...
Erakusketak: Galizako Keramika eta Eskulanak. Olagarro eta Ribero ardoa ere dastatzeko aukera. Egitarau osoa Urkizulo "Parkean" burutuko da.

MAKRAME
Hasiera: Maiarzak 6
Egunak: Astelehena eta Asteazkena
Irainketa: 20 ordu.
Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak antolaturik

NORK-ZER

Koordinatzailea:
Fernando Muniozguren.
Erredakzio taldea:
Ana Aizpuru.
Idoia Irazola.
Fernando Muniozguren.
Amaia Muruamendiaraz.
Oskar Rekalde.
Arrate Zuloaga.
Aitor Gorosabel.
Jose Luis Gorostegi.
Letizia Gomez.
Mireia Ugarteburu.
Argazkilaria:
Jose Valderrey.
Mireia Ugarteburu.
Literatur:
Ane Sarasketa.
Maketazioa:
Jose Valderrey
Komikia/Marrazkia:
Ander Gisasola.
Inprimaketa:
Gertu

BOSSA
Garagardotegia
BURGUER
Gosariak
Goizeko 9etatik aurrera zabalik
EGO GAIN Kalea z/g (Arrate Hotelaren ondoan) EIBAR

Caja Postal
BULEGO BERRIA
ZUGANDIK HURBILAGO
,Julian Etxeberria, 1 Tfnoa: 70 07 16 20600 EIBAR

IBERDUERO
ZEUK BEHAR DUZUN ENERGIA
ZEURE ZERBITZUAN
Urkizu Pasealekua, 7 EIBAR
Tfnoak. Larrialdiak: 12 01 62 Abonatuak: 29 33 00